

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

MOREDA ARABAKO UDALA

OHZren eta JEZren zergen kobrantza 2026

2026ko ekitaldiko landa eta hiri ondasun higiezinaren gaineko zergaren errolda eta jarduera ekonomikoen gaineko zergarena onetsi direnez gero, jakinarazten da 2026ko urriaren 15etik aurrera ordaindu ahal izango direla, borondatezko epean.

I. Ordaintzeko epea:

A) Borondatezko epea: 2026ko urriaren 15etik azaroaren 30era.

B) Epe exekutiboa: 2026ko abenduaren 1etik aurrera. Epe exekutiboko errekaruak, premia-mendu murriztukoak nahiz arruntekoak, Arabako Zergei buruzko otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorrean adierazitako epeetan ordaindu beharko dira.

II. Ordaintzeko tokia eta modua:

A) Bankuetan helbideratutako ordainketak:

Ordainketa aurreko urteetatik helbideratuta dutenek ez dute beste izapiderik egin beharrik, baldin eta zerga aurreko urteetako banku kontu berberetik ordaintzen badute. Udalak izapidetuko du ordainketa.

B) Helbideratu gabeko ordainketak:

Ordainketa bankuan helbideratuta ez daukatenean udalean eskatu ahal izango dute.

III. Gomendioak:

Halaber, nola banku helbideratzeetako altak edo aldaketak, hala hurrengo jakinarazpenetarako helbide aldaketak, Moreda Arabako udaletxean (La Cruz kalea, 1) izapidetu beharko dira, astelehena eta ostirala bitartean, 10:00etatik 14:30era.

Erroldan jasota dauden likidazioak kolektiboki jakinarazteko zeregina betetzen du ediktu honek, bat etorritik Arabako Zergei buruzko otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorrak 98.3 artikuluan xedatutakoarekin.

Guztiek jakin dezaten argitaratzen da.

Moreda Araba, 2026ko irailaren 16a

Alkatea

MARAVILLAS GARCÍA DÍAZ DE CERIO